



DEBAKO UDALA

BANDOA

Debako hirigunean bizi diren herritarrei jakinarazten diegu kalean jarduera fisikoa egiteko baldintzak arautzen dituen Osasun Ministerioaren Agindua:

Nortzuk: 14 urtetik gorako pertsonak.

Bizikide bakarrarekin joan ahal izango da, edo etxeko langile batekin edo ohiko zaintzailearekin.

Ezingo dira irten sintomak dituzten pertsonak, etxean edo berrogeialdian isolatuta daudenak, ez eta adinekoen zentro soziosanitarioetan bizi direnak ere.

Zer: Hirugarrenekin kontakturik behar ez duen banakako edozein kirol, bai eta paseoak ere, besteekiko gutxienez bi metroko tartea mantenduz.

Non: Debako hirigune barruan, erabilera publikoko bideetan edo espazioetan, baimendutako natur guneak eta berdeguneak barne. Ezin da kirol-instalazio itxietan egin. **Ezingo da Itziarrera joan paseatzera ezta kirola egitera ere.**

Ezingo da ibilgailu motordunik edo garraio publikorik erabili jarduera fisikoa egitera joateko.

Paseoak (**paseoak bakarrik**) **etxetik kilometro batera** egingo dira, gehienez ere.

Noiz: Egunean behin bakarrik, denbora-mugarik gabe, **06:00etatik 23:00etara.**

ALKATEA



Deban, 2020ko maiatzaren 1ean